



OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2025.07.03

Ordua: 16:30

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onspena.
2. Arantzako udalerrian ethez etxeko teleirakurketarako kontagailuen telekudeaketa, sektorizazioa eta instalazioa ezartzeko hornidura kontratua CIAQUA GESTIÓN DEL AGUA, S.L.ri esleitzea.
3. Artikutza inguruko jabetza identifikatu gabeko pottokak animalia basatiak deklaratzeko espedienteari hasiera ematea.
4. 2 eta 3/2025 aurrekontu aldaketak. Hasierako onspena.
5. Yala Nafarroa Palestinarekin-go mozioa.
6. LGTBI+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna adierazpen instituzionala.
7. Bortzirietako Euskara eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak desegitea eta Berdintasun arloko lankidetzaren hitzarmena bertan behera uztea, zein Bortzirietako Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatean eraldaketa eta berregituraketa behin betiko onartzea.
8. Alkate Ebazpenak.
9. UE5 urbanizazio proiektuan gas azpiegitura egitea beharrezkoa ez dela zehaztea, hala badagokio. → *Aparteko egoera dela eta, osoko bilkura honetan gai ordenara gehituta.*
10. Eskakerak eta galderak.



ARANTZAKO UDALA

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2025eko maiatzaren 23ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

2. ARANTZAKO UDALERRIAN ETXEZ ETXEKO TELEIRAKURKETARAKO KONTAGAILUEN TELEKUDEAKETA, SEKTORIZAZIOA ETA INSTALAZIOA EZARTZEKO HORNIDURA KONTRATUA CIAQUA GESTIÓN DEL AGUA, S.L.RI ESLEITZEA.

Ikusirik 2025eko apirilaren 25eko osoko bilkura akordio bidez Arantzako udalerrian etxez etxe teleirakurketarako kontagailuen telekudeaketa, sektorizazioa eta instalazioa ezartzeko hornidura kontratuaren plegu arautzailea eta lizitazio prozedurari hasiera ematea onetsi zela.

Ikusirik 2025eko ekainaren 6an kontratazio mahaiak aipaturiko hornidura kontratua CIAQUA GESTIÓN DEL AGUA, S.L.ri (B42209924 IKF) esleitzea proposatu duela 159.405,48 €-tan, BEZ kanpo, hura izan baita baldintzak betetzen dituen aurkezturiko lizitazailerik bakarra.

Ikusirik plegu arautzaileko 20, 21 eta 22 klausuletan xedaturikoa eta kontutan hartuta Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101.2. eta 6 puntuetan xedaturikoaren arabera, lizitazailerik bakarra aurkeztu den ez dela beharrezkoa kontratuaren esleipenaren eraginkortasuna etetea eta jarraiki kontratua formalizatu daitekeela.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Arantzako udalerrian etxez etxe teleirakurketarako kontagailuen telekudeaketa, sektorizazioa eta instalazioa ezartzeko hornidura kontratua CIAQUA GESTIÓN DEL AGUA, S.L.ri (B42209924 IKF) esleitzea, ondorengo zehaztapenekin:

- Lizitazailerik bakarra aurkezturiko memoria teknikoan zehaztaturikoa aplikatu beharko du.
- Lizitazailerik bakarra aurkezturiko proposamena mantenduko du: eskaintza ekonomikoa (159.405,48 €, BEZ kanpo), berme epea (5 urte guzira), kontratuari atxikitako langileen kualifikazioa eta esperientzia eta irizpide sozialak.

2.- Esleipendunari berriaz ohartaraztea, plegu arautzaileko 11. klausulan xedaturikoaren arabera, irizpide sozialei dagokionez eta aurkezturiko proposamena aintzat hartuta, irizpidea betetzen dela egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko direla, zuinketa eta hasierako akta sinatzen denetik gehienez ere HILABETEKO (1) epean.

3.- Eleipendunari jakinaraztea, plegu arautzaileko 21. klausulan xedaturikoari jarraiki, kontratua administrazio agiri bidez formalizatuko da, esleipen hau egin eta 15 eguneko epean.

4.- Ebazpen hau CIAQUA GESTIÓN DEL AGUA, S.L.ri jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako, eta ondorioetarako, ohartaraziz aipatutako ebazpenaren aurka, administrazio bidea bukatzen duena, tarteka dezakeela ondoko errekurtsio hauetarikoren bat:

- Berraztertze errekurtsioa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabete bateko epean, jakinarazpen honen hartzegunetik kontaktzen hasita, edo, ordezkoko eta aukerako



ARANTZAKO UDALA

izaerarekin, kontratazio publikoaren arloko erreklamazio berezia jartzea, 2/2018 Legearen 122. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Goi Auzitegiaren Administrazio Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, jakinarazpen egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Administrazioaren aurrean, hilabete bateko epean, jakinarazpen honen hartzegunetik kotatzen hasita.

3. ARTIKUTZA INGURUKO JABETZA IDENTIFIKATU GABEKO POTTOKAK ANIMALI BASATIAK DEKLARATZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA.

Idazkariak azaldu du 2025eko ekainaren 5ean Arantzako Udalak Nafarroako Gobernuko Basoak Kudeatzeko Atalaren ofizioa jaso zuela (387/2025 sarrera zk.) non adierazten zuen Donostiako Udalaren eskaera bat jaso zela, Donostiako Udalaren jabetzako den eta Goizuetako udal mugetan dagoen Artikutzako finka partikularrean zaldi aziendak (pottokak/ponyak, batez ere) duela urte batzuetatik hona etengabe daudela jakinarazteko. Abere hori ez da Artikutzako finkako jabearena, ez du finka horren jabetzaren baimenik, eta bazka-lerroetan bazkatzeaz gain, sarritan sartzen da Artikutzako baso masara. Ondorioz, Donostiako Udalak eskatu du “animalia basatiak deklaratzeko” espedientea hastea.

Horrela bada, Nafarroako Gobernuko Basoak Kudeatzeko Atalak gaia aztertu zuen eta, Goizuetako, Lesakako eta Arantzako Udalei eskatu zien, bere eskumenen arabera, zaldi azienda horiek eremu horretatik kentzeko beharrezko neurriak har ditzatela, modu bateratu eta urgentean, honako baldintza hauekin:

- Pottoken jabearen edo jabeen berri izanez gero; bide segurtasuneko arrazoiengatik eta Nafarroako Baso Ondarea Babesteko eta Garatzeko Foru Legearen debeku orokorragatik, pottokak kendu behar direla jakinaraztea.
- Pottoka horien jabeak zein diren jakin ezean, bando bat argitaratzea, indarrean dagoen araudian ezarritako epearen barruan jabeek abereak menditik ken ditzaten.
- Ezarritako epea igaro eta jabea agertu ez bada eta pottokak kendu ez badira; abere hori animalia basati gisa deklaratzeko. Akordio hori Basoak Kudeatzeko Atalera eraman beharko da, abaildura baimena eman dezan.

Zentzu horretan, aipatzekoa da Nafarroako Baso Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea garatzeko Mendien erregelamendua onartzen duen otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretuko 126.3. artikuluan xedaturiko espedientea hasi aitzinetik, Arantzako Udalak bandoa zabaldu zuela herrian, halakorik balego, jabeek abereak bildu zezaten. Halaber, ez da abereak bildu izanaren berririk jaso.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Artikutza inguruko jabetza identifikatu gabeko pottokak animalia basatiak deklaratzeko espedientea hastea.



2.- Bando bidez jakinaraztea, honako hau argitaratu eta 20 egun balioduneko epean, jabeak eta/edo jabeek Artikutza inguruan jabetza identifikatu gabeko pottokak bildu eta kendu beharko dituztela.

3.- Aipaturiko epean pottokak bildu eta kendu ezean, udalak dagokion akordioa hartuko du abere horiek animalia basatiak deklaratzeko eta Basoak Kudeatzeko Atalari jakinaraziko dio, dagokio abaildura baimena eman dezan.

4. 2 ETA 3/2025 AURREKONTU ALDAKETAK. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkari-kontuhartzaileak 2 eta 3/2025 aurrekontu aldaketa egiteko 2025eko ekainaren 27ko txostenean xedaturikoa azaldu du.

2/2025 ALDAKETA: KREDITU BEREZIAK (ATXIKITAKO FINANTZAKETA DUEN DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOTIK)

SORTUTAKO GASTUAK (kreditua gehituko zaizkion aurrekontu aplikazioak)		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 9200 6260003	ORDENAGAILU BERRIA	1.310,00 €
GUZTIRA		1.310,00 €
FINANTZAZIOA		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 8701001	AFEKTATUTAKO BALIABIDEEN DIRUZAINZAKO GERAKINA	1.310,00 €
GUZTIRA		1.310,00 €

3/2025 ALDAKETA: DIRU SARREREN KREDITUA SORTZEA

SORTUTAKO GASTUAK (kreditua gehituko zaizkion aurrekontu aplikazioak)		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 2419 1430002	LANGABEEN LANSARIA	7.253,40 €
1 2419 1430003	LANGABEEN LANPOSTU OSAGARRIA	1.197,24 €
1 2419 1430004	LANGABEEN MAILAREN OSAGARRIA	1.087,68 €
1 2419 1600002	LANGABEEN GIZARTE SEGURANTZA	3.661,68 €
GUZTIRA		13.200,00 €
FINANTZAZIOA		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 4505001	LANGABETUEN ENPLEGU DIRULAGUNTZA	13.200,00
GUZTIRA		13.200,00 €



ARANTZAKO UDALA

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- 2 eta 3/2015 aurrekontu aldaketei onespena ematea.

2.- 2/2015 aurrekontu aldaketaren akordioa udaleko iragarki taulan argitaratzea 15 egun NATURALETAN bizilagun eta interesdunek hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.

3.- Jendaurreko epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, behin betikoa egingen da aurrekontu aldaketa.

5. YALA NAFARROA PALESTINAREKIN-GO MOZIOA.

Osoko bilkurak AHO BATEZ ondorengo mozioa onartu du:

Kontuan hartuta:

- 77 urteko okupazioa, palestinarren lurren eta baliabideen lapurreta, eta hamarkadak dira Israelek apartheid sistema ezarri zuela; etengabeko genozidioa prozesu historiko batean txertatzen da, Palestinaren legez kanpoko okupazioa eta bere lurraldearen murrizketa gero eta handiagoa oinarri hartuta. Horri esker, politika edo continuum batzuk garatu ahal izan dira apartheid, segregazio, bantustanizazio [01] estrategia beraren barruan, zigor kolektiboak etengabe ezartzeko eta herri, etnizidio eta genozidio baten deuseztapena gauzatzeko, oraingoan mundu guztiaren bistan, Israeli bere planarekin jarraitzea eragotzi gabe; Israelek ez ditu aintzat hartzen eta ez ditu betetzen sistematikoki Nazio Batuen Ebazpenak, bai eta Nazioarteko Justizia Gorteak 2024ko maiatzaren 24an emandako agindua ere, zeinaren arabera «**Israeli agintzen baitio Gazako eraso berehala gelditzeko eta Gazako sarrera guztiak irekita edukitzeko eta ikerketa-batzorde bati sartzen uzteko**»; Nazioarteko Justizia Gortearen, udal honen neurri hauek betetzen direla ziurtatzeko estatu sinatzaile guztien betebeharra:

U1. Herri palestinarrari elkartasuna adierazten dio eta bere eskubideen aitortza babesten du.

U2. Espainiako Gobernuari eskatzen dio:

E1. **Gazako zerrendan berehalako su-eten iraunkorra** eska dezala nazioarteko instantzia diplomatiko guztietan.

E2. **NBEk korridore humanitarioak irekitzea bultza dezala, elikagaiak, sendagaiak eta bizitza duina izateko behar den guztia Gazan sar dadin.** Israelek sarrera legez kanpo blokeatzen jarraitzen du gaur egun, nazioarteko legezkoatasuna argi eta garbi urratuta.

E3. **Israeli armak eta petrolio berehala enbargatzea,** Gazako populazio zibilaren aurka erabiltzea saihesteko, NBEren Lurralde Palestinar Okupatuaren Errelatore Bereziak EBri eskatutakoarekin bat etorriz. [02] Israeli armak erostea eta saltzea eten dezala, genozidioak, okupazioak eta apartheidak irauten duten bitartean, herrialde honek palestinarren aurka egindako ankerkeriak ikusita eta Europar Batasunari eska diezaiola Israeli armen eta teknologia militarren salerosketa eteteko.



ARANTZAKO UDALA

E4. Israeli, potentzia okupatzaileari, eska diezaiola **suntsitutako palestinarren etxebizitza eta azpiegitura zibil guztiak berreraikitze**ko, bai eta milaka zibil palestinarri eragindako hilketa, zauri eta traumen osasun-gastuak eta kalte-ordainak ordaintzeko ere.[03]

E5. **Nazioarteko Zigor Gorteari** (bere fiskalak adierazi duenez, «Israelek nahita eta sistematikoki kendu dizkie Gaza osoko biztanleria zibilari giza biziraupenerako ezinbestekoak diren gauzak») **eta Nazioarteko Justizia Gorteari laguntza handiagoa ematea, Israelgo Gobernu eta agintekate militarretan, administratiboetan eta Estatuaren eta enpresa-esparruetan arduradun nagusiak auzipetzeko, 63 mila pertsona hilketengatik, horien artean 18.500 haur eta 12.500 emakume. Era berean, 12 mila gazatar baino gehiago desagertu direlako hondakinen azpian; ahaztu gabe Zisjordanian eta Jerusalem ekialdean ugaritu egin dela indarkeria-espinala eta lurren eta etxebizitzaren lapurreta. Ildo horretan, eskatzen dugu, nazioartean dituen betebeharren arabera, Espainiako Estatu egin dituen adierazpen garrantzitsuetatik Israelen aurka irekitako prozedurekin, modu eraginkor eta dinamikoan bat egitea, bai Nazioarteko Zigor Gortean, bai Nazioarteko Justizia Gortean. Politika aktiboak ere eskatzen ditugu, genozidioa, okupazioa edo apartheidia saihesteko eta inola ere ez laguntzeko. [04]**

E6. **Estatu Palestinarraren 1967ko gerraren aurreko mugak gutxienez onartzeaz gain, herri palestinarren autodeterminazio-eskubidea onartzea**, palestinarrek beren mugak eta etorkizuneko antolaketa zehaztu ahal izan ditzaten NBEk babestutako bidezko negoziazio batean, eta **errefuxiatutako biztanle palestinarrei itzultzeko eskubidea aitortzea**, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 194., 242. eta 3236. ebazpenek zehazten duten bezala.

E7. Espainiako enpresei eska diezaiela **Palestinako lurralde okupatuetatik datozen salgaien jatorria nahitaez adierazteari buruzko legeria betetzeko, eraginkortasunez eta berehala, zigorrak ezarriz bestela. [05]**

E8. **Europar Batasunaren eta Israelen arteko elkarte-akordioa inpugnatu dezala Europar Batasunean**, eta horretatik berehala atera dadila, lehentasunezko itun hori nabarmen ez betetzeagatik, Israelek ez baitu betetzen giza eskubideak eta printzipio demokratikoak errespetatzeko konpromisoa. Zentzu horretan, kautelazko neurri edo preautelar propioak hartzea atzerapenik gabe, Nazioarteko Justizia Gortean eskatzen duen bezala bere eginbeharrak betez, eta aldi berean Europar desinbertsio neurriak eta zigorrak sustatuz. [06]

E9. **Israelekin harremanak haustea**, nazioarteko legedia eta giza eskubideak sistematikoki urratzen dituelako. Israelek Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren arloko nazioarteko legeak urratzen jarraitzen duen bitartean eta genozidio, apartheid eta okupazio ekintzei eusten dien bitartean mantendu beharko da harremanen haustura hori.

U3. Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren arloko nazioarteko legeriarekin konprometitzen da. Hori dela eta, aplikatzekoa den araudiak ahalbidetzen duen neurrian, **ez du laguntza ekonomikorik emango, lokalen lagapenik, aitorenik edo harrera publikorik egingo Israel eta sionismoa ordezkatzeko duten pertsonen, elkarteek edo enpresek egindako edozein jarduera ekonomiko, kultural, kirol edo ludikori**, jarduera horiek Palestinaren aurkako apartheid, okupazio eta genozidioa gaitzesten badute edo jendaurrean adierazten ez badute. Nafarroako udaletako ekitaldi batzuetan eta Nafarroako Foru Gobernuaren hainbat ekimenekin gertatu den bezala.



U4. Araudi aplikagarriak ahalbidetzen duen neurrian, **bere eskumeneko kontratazio publikoko prozesuetan okupazioaren negoziorekin harreman ekonomikoak, babesletzak edo estrategikoak dituzten pertsonekin kontraturik ez egiteko konpromisoa hartzen du.**

U5. Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuko talde parlamentarioei eskatzen die azter ditzatela kontratazio publikoaren araudian aldaketak, **Giza Eskubideen arloan nazioarteko legezkotasuna babesteko klausula eraginkorragoak sartzeko**, Giza Eskubideen urraketa larrietan inplikaturako enpresekin kontratuak egitea debekatzeko.

U6. Ahal den neurrian, laguntza emango die **UNRWari eta Palestinako herriaren alde lan egiten duten giza eskubideen eta gizarte zibilaren beste erakunde batzuei**, eta lekua emango die, ahal denean, giza eskubideen defendatzaileei eta genozidioaren, apartheid-aren eta palestinar herriaren okupazioaren lekuko zuzenei eta biktimei. [07]

6. LGTBI+ HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Osoko bilkurak AHO BATEZ ondorengo adierazpen instituzionalarekin bat egitea onartu du:

LGTBI+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ekainaren 28an ospatzen da, eta horregatik Nafarroako Gobernuak bere konpromisoa berresten du pertsona guztien eskubideak defendatzeko eta bermatzeko, eta Nafarroa pluralagoa eta berdinzaleagoa helburu duten politikak bultzatzeko.

Historian zehar, LGTBI+ pertsonak asko sufritu dute, gizarteak erreprimitu eta zigortu ohi baititu aniztasuna, disidentzia eta arau sozial jakin batzuen haustura. Homosexualitatea eta transexualitatea delitu eta gaixotasuntzat hartu dira duela urte gutxira arte. Azken hamarkadetan errealitate horiek despenalizatu eta despatologizatu dira, aurrerapenak izan dira gizartean eta arauetan, eta eskubideak aitortu dira. Hori guztia kolektiboen lanaren fruituak dira, pertsona guztiek nortasuna eta sexualitatea askatasunez bizitzeko duten eskubidearen alde borrokatu baitituzte.

Nafarroa, gaur egun, erkidego aitzindaria da LGTBI+ pertsonen eskubideen defentsan eta bermean, LGTBI+ mugimenduaren eta kolektiboen lan nekaezinari esker; izan ere, haien lana erakundeekin koordinatuz, lortu dute gure erkidegoa erreferentia izatea.

Zalantzarik gabe, gure gizarteak aurrera egin du eskubideak aitortzeari eta aniztasuna errespetatzeari dagokionez, baina ezinbestekoa da berdintasuna eta aniztasuna aldarrikatzen jarraitzea, funtsezko balioak baitira gizarte bidezkoagoa eta pluralagoa eraikitzeko. Hala ere, lortutakoa gorabehera, azken urteotan diskurtso eta jarrera erreakzionarioek gora egin dute larriki, eta hainbat sektore sozial eta politikok zalantzan jartzen dituzte LGTBI+ pertsonentzat eta, bereziki, trans pertsonentzat lortutako aurrerapenak eta eskubideak. Izan ere, LGTBI+fobia ez da desagertu, ezta genero orientazio, -identitate eta -adierazpenean oinarritutako gorroto-delituak ere.

Olatu erreakzionarioaren aurrean, eskubideak ukatu nahi dituztenen aurrean, Nafarroako Gobernuak bere konpromisoa berretsi egiten du sexu- eta genero-identitate eta -aukera guztien berdintasunarekin, aniztasunarekin eta ikusgarritasunarekin, bai eta LGTBI+ pertsona guztien eskubideak defendatzearekin ere; izan ere, irmoki uste dugu pertsona guztien eskubideak aitortzeak eta bermatzeak laguntzen duela Nafarroako gizarte inklusiboagoa eta berdinzaleagoa izaten, aniztasuna harroki aldarrikatu eta defendatuko baitu.



ARANTZAKO UDALA

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuak aurten ere “Aniztasunean Harro” leloa daraman kanpaina egin du. Kanpaina horren bidez, pertsona guztiek beren gorputzari eta nortasunari buruz erabakitzeko eta izateko duten eskubidea aldarrikatu nahi da. Horrela, “Naizena naiz” da aurtengo kanpainako irudiekin batera doazen mezuak. Helburua da harrotasun askotarikoa indarrez eskatzea, inposatutako mugetatik eta kategorietatik haratago, eta pertsona guztiek aske bizitzeko eta izateko duten eskubidea defendatzea.

Nafarroako Gobernuak herritar guztiak animatzen ditu kolektiboek ekainaren 28an lurralde osoan antolatutako mobilizazioetan parte hartzera.

7. BORTZIRIETAKO EUSKARA ETA GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAK DESEGITEA ETA BERDINTASUN ARLOKO LANKIDETZA HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA, ZEIN BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKIN SOLIDOAK KUDEATZEKO MANKOMUNITATEAREN ERALDAKETA ETA BERREGITURAKETA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Bortzirietako udalen artean indarrean dagoen tokiko lankidetzaren egitura instituzionala ikusirik, zeinak barne hartzen baititu Euskara, Gizarte Zerbitzuak eta Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitateak, bai eta 2021eko maiatzaren 28an berdintasunaren arloan administrazioen arteko lankidetzaren hitzarmena ere.

Herri arteko lankidetzarako egitura instituzional horri buruz egin diren aurretiazko azterlanak ikusirik, ondorioztatu dutenak haren bidez ematen diren zerbitzu publikoen integrazioaren bideragarritasuna eta interes publikoa, Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitate bat egituratzearen bidez.

Bortzirietako Euskara eta Gizarte Zerbitzu Mankomunitateak desegiteko proiektuen edukia ikusirik, bai eta berdintasun arloko gaietan administrazioen arteko lankidetzaren hitzarmena bertan behera uzteko proiektuarena, zein Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea eraldatzeko eta berregituratzeko proiektuarena, zeinetan ondorioztatzen den Bortzirietako udalen aldetik euskara, gizarte zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta berdintasunaren arloko lankidetzaren gaietan batera garatzen eta ematen diren jarduerak eta zerbitzuak integratzeko prozesua gauzatu eta egituratzeko irtenbiderik egokiena honakoa dela:

- Hiri Hondakinak Kudeatzeko Mankomunitatea eraldatzea eta berregituratzea, haren jarduerak eremua eta xedea zabaltzeko, bertan barneratuz euskara, gizarte zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta berdintasuna zerbitzuak ematea era mankomunatuan, bere egitura instituzionala eta estatutarioa aldatuta eta Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatea bihurtuta.
- Aldi berean, Euskara eta Gizarte Zerbitzu Mankomunitateak desegitea eta likidatzea, eta berdintasunaren arloko hitzarmena bertan behera uztea.

Kontuan izanik Bortzirietako Euskara eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak desegiteko, berdintasunaren arloko hitzarmena bertan behera uzteko eta Hiri Hondakinak Kudeatzeko Mankomunitatearen Estatutuak aldatzeko espedienteak, Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitatearen eraldatzeko, 6/1990 FLk araututakoaren arabera (49 eta hur. art.ak) izapidetu direla.



ARANTZAKO UDALA

Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuko Toki Administrazioiko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiko Toki Administrazioiko eta Toki Administrazioiko Toki Entitateekiko Aholkularitza Juridikoaren eta Lankidetzaren Zerbitzuak Bortzirietako Euskara eta Gizarte Zerbitzu Mankomunitateak desegiteko, berdintasunaren arloko administrazioen arteko lankidetzaren hitzarmena bertan behera uzteko zein Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitatean eraldatzeko estatutu aldaketa proiektuen alde egindako txostenak ikusirik.

Osoko bilkurara bertaratuak kideek, legezko kide kopuruaren gehiengo osoa izanik, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Bortzirietako Euskara eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak desegitea, bai eta Bortzirietan berdintasun zerbitzua emateko administrazioen arteko lankidetzaren hitzarmena bertan behera uztea behin betiko onestea, hala badagokio, 2025eko abenduaren 31tik aitzinerako ondorioekin.

2.- Bortzirietako Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatearen Estatutuen aldaketa eta haien testu bategin berria behin betiko onestea, Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatea gisa izendatu eta egituratzeko, Bortzirietako gizarte zerbitzuak emateko, Bortzirietan euskararen normalizazioa sustatzeko, Bortzirietan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna zein genero indarkeriaren kontrako politikak sustatzeko, eta Bortzirietan hiri hondakin solidoak kudeatzeko toki entitate elkarte gisa, hala badagokio, 2026ko urtarrilaren 1etik aitzinerako ondorioekin.

3.- Bortzirietako Euskara eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateen ondarearen likidazio eta banaketa faseari hasiera ematea, Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitatearen alde, baldintza hauetan:

- a) Ondorioztatuko den diruzaintzako gerakin positiboa transferitzea, eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen titulartasuneko banku-kontuak kitzatzea. Horretarako, likidatzeko fasea bukatzean ondorioztatuko diren kopuru likidoak eta diruzaintzako soberakin positibo horiek Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitatearen ondarrera transferitu eta bertan barneratuko dira.
- b) Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen baliabide materialen titulartasuna Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitateari eskualdatzea, eta haien titulartasuna Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitatearen ondarean barneratzea, hala badagokio, 2026ko urtarrilaren 1etik aitzinerako ondorioekin.

4.- Bortzirietako Euskara eta Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateetako langileen eta Igantzioko Udalak Bortzirietan berdintasunaren arloko zerbitzuak eta jarduerak emateko kontratatu dituen langileen transferentzia eta eskualdatzea onartzea, dagozkion Desegite Proiektuetan zein berdintasun arloko hitzarmena bertan behera uzteko memorian deskribatutakoak, mankomunitateak desegiten direnean zein berdintasunaren arloko hitzarmena bertan behera uzten den unean edukiko duten langile publiko funtzionario edo lan kontratudun izaera eta baldintza beretan eta une horretan izanen dituzten eskubide kontsolidatuak erabat errespetatuz, eta



ARANTZAKO UDALA

Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitatearen plantilla organikoan barneratzea, hala badagokio, 2026ko urtarrilaren 1etik aitzinera.

5.- Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen zerbitzu eta hornidura kontratueta eskubide eta betebeharrak guztietan Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatearen subrogazioa onartzea, hala badagokio, 2026ko urtarrilaren 1etik aitzinerako ondorioekin, dagozkien Desegite Proiektuetan horretarako adierazten direnak, bai eta Igantziko Udalak Bortzirietan berdintasunaren arloan zerbitzuak eta jarduerak emateko sinatutako zerbitzu eta hornidura kontratueta eskubide eta betebeharrak guztietan ere, Hitzarmena Suntsiarazteko Memorian horretarako adierazten direnak, eta aipatu eranskinetan eta memorian horretarako adierazten diren eta mankomunitateak desegin eta berdintasunaren arloko hitzarmena suntsiarazten den egunean indarrean dauden zerbitzu eta hornidura kontratuak bertan behera uztea.

6.- Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, dagozkion ondorioak izan ditza.

8. ALKATE EBAZPENAK.

2025eko 85etik 108ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

Jarraian, osoko bilkurak AHO BATEZ ERABAKI DU Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4. artikuluan xedaturikoari jarraiki, ondorengo puntua gaurko osoko bilkurak gai ordenan sartzea:

9. UE5 URBANIZAZIO PROIEKTUAN GAS AZPIEGITURA EGITEA BEHARREZKOA EZ DELA ZEHAZTEA, HALA BADAGOKIO.

Idazkariak azaldu du 2025eko azaroaren 22an Silvia Tellechea Iraolak eta Iñaki Etxeberria Aranazek sustaturiko UE5 unitateko urbanizazio proiektua jaso zela. Horri dagokionez, 2025eko urtarrilaren 20an udal arkitektoak hirigintza txostena egin zuen non zehazten zuen, bertzeak bertze, gas azpiegitura egiteko zerbitzu horren konpainiekin kontsultatu beharra zela eta horrek adierazitako baldintzak urbanizazio proiektuan atxikitu beharrak zirela.

Zentzu horretan, aipatzekoa da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 91.1. artikuluan xedaturikoaren arabera, lurzati bat solar bezala kontsideratzeko eta planeamenduan kasu bakoitzerako ezarritako gutxieneko arauen arabera urbanizatuak eduki beharko dituzte, gutxienez, ibilgailuentzako sarbidea, ur hornidura, saneamendua eta argindarraren hornidura, eta gainera lurzatiaren aurreko aldeko bideak zoladura emana izan beharko du, eta espaloiek zintarria jarrita.

Ondorioz, ikusirik sustatzaileek bereziki gas horniduraren konpainiarekin harremanetan paratzeko izan dituzten zailtasunak eta, azken finean, baldin eta etorkizunean etxebizitza egiten bada, honek



ARANTZAKO UDALA

ez duela gas sistemarik izanen, udalak arkitektoarekin aztertu du ea betebeharrak hain salbuesterik dagoen. Batez ere, jakinda aipaturiko legerako artikuluan ezarritakoaren arabera ez dela beharrezkoa gas azpiegitura egitea eta, gainera, garatzen ari den Udal Planeamendu berria ez dagoelako aurreikusia hiriluzorua UB5etik jarraian garatzea.

Osoko bilkurak AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- UE5 urbanizazio proiektuan gas azpiegitura egitea beharrezkoa ez dela zehaztea.
- 2.- Akordio hau sustatzaileei jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

10. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 17:15 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

Saturnino Larralde Ibarrola

**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**

Nagore Madariaga Iriarte